

## BALTY

Euskal hizkuntzalari eta psikolinguistek kezkatuta jarraitzen dute, ez baitute erraz topatzen euren eskola eta ikerketa enprikoetarako material iturri agortezina zirudien Wally. Topatzen dutenean, gainera, begiak paperetik altxa gabe aurkitzen dute (eta irakurketa akatsek eta hizketa mordoiloek jatorria ez dute, antza, gogo/garuneko ezintasun berean) edo, okerrago dena, isil-isilik geratzen da alderdiko irudi-aholkulariaren aginduari jarraiki. Pena da, bai, hizkuntz zientzientzat halako espezimena ikertzeko aukera galdu izana.

Logika, erretorika, argudiatzearen teoria eta zuzenbidearen filosofiako irakasleek, berriz, pozez zorutzen egon behar dute, eskolak hasteko gutxi falta dela. Azken urteotan falazia mota guztien adibideak produzitzen dituen idazle paregabea topatu dute: Balty epailea. Behingoz *petitio principii*, *ad hominem*, *ad verecundiam* eta antzeko izenak daramatzaten falazia klase eta konbinazioak ikasleek sekula ez ahazteko moduan azal ditzakete, eguneroko adibide ezagunak erabiliz. Egunerokoak bai, Wally ez bezala, egunero aurki baititzakegu Balty eta bere falaziak egunkari, irrati nahiz telebistetan. Bide batez, hezkuntza sistemak hain gaizki tratatutako latinari ere bultzadaxo bat emango zaio. Hau bai pagotxa!

Etxean ariketa batzuk egin nahi dituenarentzat hona proposamen bat: Zenbat aldiz egin ditu Baltyk falazia hauek azken bi urteko auto, probidentzia, ofizio eta ebazpenetan?

*Petitio principii* edo P ondorio gisa frogatzeko argudioan P bera premisa gisa erabiltzea. Demagun, P = «Batasuna eta ETA gauza bera dira».

*Ad hominem* edo argudio-egilea erasotzen da eta ez argudioa bera. Demagun, adibidez, argudio egilea = Egin, Jarrai, Xaki, Amnistiaren aldeko Batzordeak edo Batasuna.

*Ad verecundiam* edo X-k asko daki P-ri buruz, X-k P esan du; beraz, P egiazkoa da. Demagun, X = Balty bera edo Inteligentzi Unitate Zentrala izenekoak.

Tira, ariketa batzuk baino, doktorego tesi batzuk egiteko moduko lana dago hemen. Are gehiago, egiaren eta, zer esanik ez, justiziaren kaltetan, arrazoitze eta argudiatze falaziatsua Baltyren autoetatik EAeko Herrizaingo sailaren erabakietara hedatu denean, gobernu, legelbitzar, epaitegi, alderdi politiko eta komunikabideetan zehar. Wallyk ez bezala, Baltyk eskola sortu du: sofista berrien eskola. Sokrates, Platon eta Aristotelesek galdua dute egia eta justiziaren aldeko borroka. Oraingoz.